



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko apirilaren 26a

52. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez berrezar dezan Mendekotasun Sistemako zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzako hitzarmen berezia ordaintzeko finantzaketa. Eskubide Sozialetako Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposa dezan, helburuen betetzean oinarritzen dena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da pentsio-sistema publiko bat ezar dezan, birbanaketarako eta desberdintasun-murrizketarako ahalmen handiagokoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Jabetza-erregistratzaileen Elkar-goari eska diezazkion Eliza Katolikoak –erabilitako izena zein den ere– immatrikulatutako ondasunen informazio-ohar soilak edo zerrenda. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da etxebizitza egoki baterako eskubidea bermatzeko dauzkan nazioarteko betekizunak bete ditzan; eta Nafarroako Gobernuak, abian jar ditzan 24/2013 Foru Legean jasotako neurri guztiak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zuzendaritza nagusiaren maila ken diezaion Errealitate Sozialaren eta Politika Sozialen Plangintzarako eta Ebaluaziorako Behatokiari. Eskubide Sozialetako Batzordeak ezetsi egin du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako pentsioen egoeraren gaineko azterlan bat aurkez dezan, eta behar diren urratsak egin ditzan pentsio-sistema propio baterantz aurrera egiteko. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (6. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez berrezar dezan Mendekotasun Sistemako zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzako hitzarmen berezia ordaintzeko finantzaketa.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2018ko apirilaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez berrezar dezan Mendekotasun Sistemako zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzako hitzarmen berezia ordaintzeko finantzaketa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Estatuko Aurrekontu Orokorren bidez berrezar dezan Mendekotasun Sistemako zaintzaile ez profesionalen Gizarte Segurantzarako hitzarmen berezia ordaintzeko finantzaketa.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du hitzarmena aldatu eta kotizazio horren zenbatekoa handitu dezan, zaintzaileek langabeziarengatiko prestazioak jasotzeko eskubidea izan dezaten”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposa dezan, helburuen betetzean oinarritzen dena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposa dezan, helburuen betetzean oinarritzen dena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Egiazko lanbide-karrera bat aurreratu eta proposatu dezan, helburuen betetzean oinarritzen dena.

2. Zerbitzu-ematea modalitate ez-presenztialean egitea susta dezan, enplegatu publikoendako telelanaren formula erabiliz, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurri gisa.

3. Sindikatuekin egin beharreko negoziazio kolektiboan egiazko lanbide karrera bat sartzea eta aurkeztea, helburuen betetzean oinarritua, eta aldaketa bat egitea giza baliabideen kontrolaren erudian, halako moldez non presentzia-denborak neurtzen dituen kontrol batetik helburu-betetzearen arabera kontrol batera pasako baita".

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pentsio-sistema publiko bat ezar dezan, birbanaketarako eta desberdintasun-murrizketarako ahalmen handiagokoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pentsio-sistema publiko bat ezar dezan, birbanaketarako eta desberdintasun-murrizketarako ahalmen handiagokoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. 2011ko kontsentsura itzul dadin, 2011-2015 legegintzaldian zehar sartutako lege-aldaketa guztiak indarririk gabe utziz: 5/2013 Errege Lege Dekretuak erretiro aurreratuari buruz eginiko arauketa eta, oso-osorik, 23/2013 Legea, Jasangarritasun Faktorea eta Gizarte Segurantzaren Pentsio

Sistemaren Errebalorizazio Indizea arautzen dituen.

2. Pentsioen erosahalmena berma dezan, haien gaurkotzea KPlaren arabera egitea berreskuratuz.

3. Jasangarritasun-faktorea, PPK 23/2013 Legean ezarritakoa, ken dezan; faktore horrek eraginen du erretiro-pentsioak murriztea kasuan kasuko kohortearen bizi-itxaropenaren arabera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.

4. Sistemaren gastuak arrazionaliza ditzan, 2018ko Estatuko Aurrekontu Orokorretara eramanez prestazioei ez dagozkien gastuak; honako gastu hauek, besteak beste:

a) Enplegua sustatzeko neurriak (kuota-murrizketak, tarifa lauak eta abar). Baldin eta horietakoren bati eustea beharrezkotzat jotzen bada, hobarien bidetik egin beharko litzateke, eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura.

b) Gizarte Segurantzaren Erakunde Administrazioen kudeaketarako gastuak, gainerako erakunde publikoekin egiten den bezala.

5. Sistemaren diru-sarrerak handitu ditzan:

a) Gizarte Segurantzaren finantzaketa osatuz, besteak beste, zergetatik datozen diru-sarreraren bitartez, urtero kotizazioen bidezko diru-sarrerak osatzeraino, sistemaren barruan diru-sarrera horiek berriz orekatzen diren arte; esate baterako, bankari eta transakzio finantzarioei aparteko zerga berriak ezarri beharko litzaizkieke. Gure ustez, finantza-entitateen erreskatean Espainiako gizarte osoak lagundu baldin badu, zerga horrek balio behar du pentsio-sistema publikoaren erreskatean laguntzeko.

b) Enplegu irregularraren eta Gizarte Segurantzari eginiko iruzurraren aurkako borroka areagotuz.

6. Sistemaren babes-izaera hobetu dezan, Erreserba Funtzaren kudeaketa modernizatzuz.

haren arauketaren hobetzearen bidetik, urtealdi bakoitzerako funts-erabilerarako mugak berreskuratuz.

7. Berariazko neurriak har ditzan pixkanaka deuseztatze aldera gizonen eta emakumeen pentsioen zenbatekoen artean egun dagoen % 40 inguruko arraila:

a) Lanbide arloko berdintasunerako lege bat onestea, soldaten arraila eta, horrenbestez, kotizazioen arraila deuseztatzeko, horrek azken batean pentsio txikiagoak eragiten baititu.

b) 27/2011 Legean jasotako legegintza-ekimen sozialista berreskuratzea, 65 urtetik gorakoak izan eta beste pentsio publikorik jasotzen ez dutenen alargun pentsioa oinarri arautzailearen % 60ra iritsi arte igotzekoa; izan ere, neurri horrek gehienbat emakumeengan izanen du eragina”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jabetza-erregistratzaileen Elkargoari eska diezazkion Eliza Katolikoak –erabilitako izena zein den ere– immatrikulatutako ondasunen informazio-ohar soilak edo zerrenda.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jabetza-erregistratzaileen Elkargoari eska diezazkion Eliza Katolikoak –erabilitako izena zein den ere– immatrikulatutako ondasunen informazio-ohar soilak edo zerrenda”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Jabetza-erregistratzaileen Elkargoari eska diezazkion Eliza Katolikoak Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean 1978tik 2015era bitarte immatrikulatutako ondasunen informazio-ohar soilak (edo, halakorik ezean, ondasun horien zerrenda), zein ere den hark erabilitako izena –"elizbarruti", "apezpikutza", "parrokia" edo gisakoak–”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da etxebizitza egoki baterako eskubidea bermatzeko dauzkan nazioarteko betekizunak bete ditzan; eta Nafarroako Gobernua, abian jar ditzan 24/2013 Foru Legean jasotako neurri guztiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko apirilaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da etxebizitza egoki baterako eskubidea bermatzeko dauzkan nazioarteko betekizunak bete ditzan; eta Nafarroako Gobernua, abian jar ditzan 24/2013 Foru Legean jasotako neurri guztiak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Etxebizitza egoki baterako eskubidea bermatzeko dauzkan nazioarteko betekizunak bete ditzan. Horretarako, legeak garatuko ditu eta aurrekontuetako partidak handituko ditu, halako moduan non beteko dituen 5/2015 zenbakiko Jakinarazpenaren gomendio lotesleak. Jakinarazpenean jasotzen da, halaber, DESC batzordeak 61. bilkuraldian (2017ko maiatzaren 29tik ekainaren 23ra arte) onetsitako irizpena.

2. Neurri egokiak har ditzan, legegintzakoak zein administratiboak, bermatze aldera maizter-utzarazpenetarako prozesu judizialean demandatuek aukera izan dezaten aurka egiteko edo errekurso bat aurkezteko, epaileak ebaluatu ahal izan ditzan familia demandatuaren ahultasun egoera eta etxebizitza eskuratzeko modua. Bereziki, Gobernua premiatzen da Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea eta Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea alda ditzan, bermatze aldera babes judizial eraginkorrerako eskubidea eta beste etxebizitza-aukerarik gabeko utzarazpenen debekua.

3. Bete egin ditzan Nazio Batuen Eskubide Ekonomikoei, Sozialei eta Kulturei buruzko Batzordearen 7. Ohartarazpen Orokorrean eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako xedapenak, berehala debekatu eta geldiaraztearren pertsonak eta familiak beren lehen etxebizitza eta bakarra den horretaz gabetuak izatea, beste etxebizitza-aukerarik ez dutenean.

4. Tresna administratiboak jar ditzan, borrokatzearren sozietate handien edo etxebizitza-erakunde handiak diren entitateen eskuetan etxebizitzak pilatzearen aurka. Halaber, premiatzen da legegintzako neurriak har ditzan, etxebizitza-erakunde handiak direnak behartze aldera haien etxebizitza hutsak laga diezazkieten administrazio publiko eskudunei, bazterketa arriskuan dauden pertsona edo familien larrialdi sozialeko egoerari aurre egiteko.

5. Sustatzea hitzarmenak egin daitezkeen SAREB-Bankuen Berregituratze Heldutako Aktiboak Kudeatzeko Sozietatearekin eta bankuekin, haien etxebizitza hutsak laga diezazkieten autonomia eta toki mailako administrazioei, alokairu sozialera bideratzeko.

6. Kontrolerako mekanismoak ezar ditzan, Espainiako etxebizitza-erakunde handiak behartze aldera alokairu soziala bermatzera ahultasun egoeran dauden familien mesedetan, familia-unitatearen diru-sarrerara ponderatuak konprometitu gabe.

7. Kreditu-lerro bat ezar dezan ICO-Kreditu Ofizialeko Institutuan, alokairura bideratuko diren etxebizitzaren eraikuntza edo zaharberritzea finantzatzeko.

8. 2018ko martxoan DESC batzordeak taxuturiko Espainiari buruzko seigarren aldizkako txosteneko azken ohartarazpenak betetzea; zehazki, "Etxebizitza egoki baterako eskubidea" eta "Utzarazpenak" apartatuetako 35, 36, 37 eta 38 puntuak.

9. Nafarroako Parlamentuak etxebizitzaren arloan hartutako erabaki guztiak errespetatu ditzan, inolako esku-sartzerik gabe".

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legean jasotako neurri guztiak albat azkarren abian jar ditzan.

2. Etxebizitza baten beharrean dauden pertsona eta familien errolda bat presta dezan; geltan bizi diren pertsonena, bereziki. Errolda hori

lankidetzan prestatuko da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin, osasun zentroekin eta ikastetxeekin.

3. 2018-2028 Etxebizitza Plana prestatu ondoren, etxebizitzari buruzko lege integral berri baten taxuketa planteatu dezan, zeinak etxebizitzarako

eskubide subjektiboa jasoko baitu, halakotzat ulerturik etxebizitza eskuragarri, duin eta egoki batean bizitzeko eskubidea”.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zuzendaritza nagusiaren maila ken diezaion Errealitate Sozialaren eta Politika Sozialen Plangintzarako eta Ebaluaziorako Behatokiari.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialako Batzordeak, 2018ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zuzendaritza nagusiaren maila ken diezaion Errealitate Sozialaren eta Politika Sozialen Plangintzarako eta Ebaluaziorako Behatokiari,

zeina María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu baitzuen eta 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako pentsioen egoeraren gaineko azterlan bat aurkez dezan, eta behar diren urratsak egin ditzan pentsio-sistema propio baterantz aurrera egiteko.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko apirilaren 19an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi egin du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako pentsioen egoeraren gaineko azterlan bat aurkez dezan, eta behar diren urratsak egin ditzan pentsio-sistema propio baterantz aurrera egiteko.

Mozioa María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztu zuen eta 2018ko apirilaren 5eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

